



IKASGAIAREN PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTURTEA: 2018-2019

IKASGAIA: Atzerriko lehen hizkuntza, Ingelesa

MAILA: Batxilergoa 2. maila

1- IKASGAIAREN OINARRIZKO GAITASUNAK

Atzerriko Lehen Hizkuntza irakasgaia, bere modalitate ezberdinetan, oinarrizkoa eta oso lagungarria da **hizkuntza komunikazioko gaitasuna garatzeko**, ez bakarrik bigarren hizkuntzei dagokienez, baita ama hizkuntzei dagokienez ere. Irakasgai honetan bereziki ahozko eta idatzizko adierazpeneko eta elkarrekintzako jarduerak landuko ditugu helburu komunikatibo hau gauzatzeko.

Baina honetaz gain ondorengo gaitasunak ere landuko ditugu:

- Gaitasun digitala.
- Ikasten ikastea.
- Gaitasun sozial eta zibikoak.
- Ekimena eta ekintzailletza.
- Kultura eta kontzientzia eta adierazpenak

2- EDUKIEN DENBORALIZAZIOA (Gutxieneko edukiak letra lodiz)

2.1- LEHENENGO EBALUAZIOA

Irakasleak aurreko ikasturteko gramatikako errepasso sakona egingo du ondo finkatzeko aditzaldiak, lokailuak, eta perpaus mota guztien erabilpena lehenengo ebaluaziotik. Batxilergo 2. mailako gramatikako aspektu berriak gehiago, sakonago eta mantsoago landuko dira ikasturtean testuliburuko unitateetan zehar baina aldeaz aurretik Ingelesa arloan aurreko ikasturteetan ikasitako gramatika osoko ezagutza eta oinarrizko kontrola eskatuko eta landuko da. Hau da, gramatika osoko ikuspenarekin landuko da lehenengo momentutik ikasturte hasieran Batxilergo 2. mailako liburuak beste gramatika eta edukin denboralizazioa badu ere. Orain arte ikasitako gramatika osoa finkatuko da ikasturte hasierako saioetan lehenengo momentutik ikasturte honetan. Horrela Ingelesez edozein ideia ulertzeko eta adierazteko gai izanen dira ikuspegi orokorra lortuz.

Starter

UNIT 1 **Connect**
UNIT 2 **Sport and fitness**

- Ahozko eta idatzizko testuak ekoizteko eta ulertzeko gai izan hurrengo gaiei buruz:

- Present Simple / Present Continuous
- Past Simple / Past Continuous
- Past Simple / Past Perfect Simple
- Present Perfect Simple / Past Simple
- Present Perfect Simple / Present Perfect Continuous
- Future forms, tenses: question forms
- Reported speech
- Relative clauses

- Gai bakoitzari buruzko hiztegia erabiltzeko gai izan:

Language and communication, the internet and social networks, on the phone, sport, movement verbs, keeping fit.

- Etxeko eta gelako lanak bete

2.2- BIGARREN EBALUAZIOA

UNIT 3 **Buy, sell, waste**
UNIT 4 **Society**

- Ahozko eta idatzizko testuak ekoizteko eta ulertzeko gai izan hurrengo gaiei buruz:

- The Passive, the causative
- Conditionals, wishes and regrets

- Gai bakoitzari buruzko hiztegia erabiltzeko gai izan:

Shopping, idioms, waste, society, phrasal verbs, crime and justice.

- Etxeko eta gelako lanak bete.

Oharra: Ebaluazio jarraia denez aurreko ebaluaketetan emandako egitura gramatikala ere sartzen da.

2.3- HIRUGARREN EBALUAZIOA

UNIT 5 **Looks**
UNIT 6 **Learn and work**

- Ahozko eta idatzizko testuak ekoizteko eta ulertzeko gai izan hurrengo gaiei buruz:

- Modal verbs: forms, functions and alternatives.
- Verb structures.

-Gai bakoitzari buruzko hiztegia erabiltzeko gai izan

Looks, verb suffixes: -en, -ify, -ize, describing people, careers, compound nouns: jobs, personal qualities.

- Etxeko eta gelako lanak bete.

Oharra: Ebaluazio jarraia denez aurreko ebaluaketetan emandako egitura gramatikala ere sartzen da.

3- BALIABIDE DIDAKTIKOAK

ADVANTAGE 2 BURLINGTON BOOKS

Student's book

4- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

25/2015 FORU AGINDUAK ezartzen dituenak eta Ingelesa Departamentuak zehazten dituenak.

5- KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Kalifikatzeko atalak

Azterketak, probak,... (exams)

BEUS (Selektibitatea) azterketa modukoa (reading/writing): 90 %

Classwork, Homework (Gelan egindako lana eta ariketetan parteartea, Etxeko lana): 10%

Oharra:

- Irakaslearen esku gera daiteke ikasle baten gaitasunak kalifikatzea, klasean eta etxean egindako lanen bidez, arrazoi justifikatuengatik azterketa egiteko aukerarik edota denborarik ez balego.
- Ikasle bat ez bada azterketa batera azaltzen, egiaztagiri medikua aurkeztu beharko dio ingeleseko irakasleari beste momentu batean azterketa egin ahal izateko.

6- BERRESKURAPEN SISTEMA

Ikasturtean zehar lantzen diren edukiak jarraiak izanen dira. Beraz, ebaluazioa ere jarraia izanen da eta landutako edukiak ondorengo ebaluazioetan ere kontutan hartuko dira. Ebaluazioren bat gainditzen ez bada, hurrengoa gainditu beharko da aurrekoa berreskuratzen.

Behin 3. ebaluazioa amaitu ondoren ikasleren batek irakasgaia gaindituko ez balu, 3. ebaluazioko berreskurapena egingen zaio, eta hori gaindituko ez balu, azterketa finalean erreperatu beharko du. Horretaz gain, ez-ohiko azterketa bat egingen da ekainean ikasgaia

gaintzeko.